




Gipuzkoa kanpoko merkataritzari eta barruko kontsumoari esker haziko da

- *Gipuzkoako ekonomiak bi puntuko hazkundera izango duela aurreikusten du Gipuzkoako Bazkondeak.*
- *Gipuzkoako enpresak baikorrak dira esportazioen aurrean, baina espainiarrak baino kontserbadoreagoak dira lana sortzeari dagokionean.*

Donostia, 2015eko urtarrilaren 28a. Gipuzkoako Bazkondeak Europako Enpresa-Perspektiben Inkestatik ateratako datuek adierazten dutenez, Gipuzkoako ekonomiaren aurreikuspena hobera joango da kanpoko merkataritza eta barruko kontsumoari esker. Hau dela eta, 2015 honetarako Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako ekonomiak **bi puntuko** hazkundera izango duela aurreikusten du.


Inkestaren arabera, 2014 urtean izandako emaitzek Gipuzkoako enpresek hasiera batean zituzten aurreikuspenak hobetu dituzte. Euren negozioen garapen baikorra itxoiten duten enpresek, egonkor mantentzen dira beherako joera arin batekin, honek erakusten du 2014ko hobekuntzaren ondoren 2015ean euren emaitzei eustea espero dutela. Aldaketa 2014ean emaitza txarrak izan dituzten enpresetan ikusten da, 2015erako euren kontuak orekatuta izateko aukera erakusten dutelako.

Gipuzkoako enpresek pentsatzen dute euren emaitzak hobetzeko orduan esportazioen bitartez aukera gehiago dituztela estatuko merkatuan baino. Enpresen negozio zifrak hoberako joera argia dute. Industrian eta eraikuntzan garapen ezkor bat espero duten enpresen kopurua %10tik beherako da. Zerbitzu sektorean berriz zifra hau %13koa da eta merkataritza sektoreak hobekuntza espero du (%9). Azken finean, inkestaren emaitzek adierazten dute 2015erako enpresek ekonomiaren berreskuratzearen sendotzea espero dutela.



Nahiz eta 2014ean euren lan taldeak handitu zituzten enpresak hasiera batean hau egitea aurreikusten zutenak baino gehiago izan, 2015erako enpleguaren aurreikuspenak kontserbadoreak izaten jarraitzen dute eta lan postuei eusteko joera da nabarmentzen dena. Emaitza hauei eraikuntzaren sektoreak egiten die oztopo, sektore honen joera beherako izaten jarraitzen duelako. Azpimarratzekoa bestalde,

Gipuzkoako enpresarien inbertsio aurreikuspenak eta enpresa giroak modu arinean bada ere, hoberako joera hartu dutela.



— hobeto — berdin — okerro

Dena den, emaitza guztiek eta indikatzaile guztiek aurreikuspenak hobeak izango direla adierazten badute ere, guztia zuhurtziarekin hartu behar dela kontutan izan behar dugu.

Joan den urteari dagokionez, Gipuzkoak Eukal Autonomi Erkidegoak baino hazkunde baikorragoa izan zuela nabarmendu behar dugu, Gipuzkoako BPG %1,1 hazi zen. Gipuzkoaren irteera atzeralditik hiru hilabetez aurreratu zen Euskal Autonomi Erkidegoko beste bi lurraldeekin alderatuta, eta 2014ean zehar ere garapen baikorrago bat erakutsi duela esan daiteke.

Euskadi. 2015eko perspektibak


Inkestaren emaitzek adierazten dute 2015eko euskadiko ekonomiaren hazkundera kanpoko merkatutik etorriko dela. 2014ean ia enpresen erdiak euren emaitzak baikorrak izan zirela kontsideratu zuten, aurreko urtean (2013) erdiak baino gehiagok euren emaitzak ezkorrek zirela zioten bitartean. 2015erako emaitzen aurreikuspen baikorra mantentzen da %40 enpresa baino gehiagorentzat, eta emaitza txarrak izango dituztela pentsatzen dutenak %12a besterik ez dira, joan den urtean egoera honetan aurkitzen zirenak ia heren ziren bitartean.

Enplegu kontutan, aurreikuspenek hobekuntza motel bat erakusten dute. Enpresen gehiengoak usten du lan taldeari eustea izango dela gerta daitekeena. Barruko merkatuari egindako ekarpena 2014ean enpresek pentsatzen zutena baino zerbait hobeagoa izan zen eta 2015erako hobekuntza hori sendotzea espero da. Enpresen %12ak bakarrik ditu aurreikuspen okerragoak salmentetan, orain dela bi edo hiru urte egoera honetan aurkitzen zirenak %60 eta %70 ziren bitartean. Kanpoko merkatuentzat hobekuntza arin bat espero da, eta hain zuzen ere hau izan da eutsi duen faktore bat eta urte hauetan atzeraldia larriago bat egotea ekidin duena. Euskal Autonomi Erkidegoko %50 enpresa baino gehiagok euren emaitzak kanpoan hobetzea espero dute. Inbertsioek ere gorako joera bat adierazten dute, honek epe ertain batean ekonomiaren aurreikuspen baikor bat erakusten duelarik. 2015ean enpresa giroak hobera giten du modu argi batean.

Europa - Gipuzkoa

Gipuzkoako enpresak europakoekin konparatuz gipuzkoarrak erdian kokatzen direla ikusten dugu, europakoen batzbestekotik gertu. Espainiako enpresak hirugarrenak

dira rankinean, europako batzbestekoaren gaintik. Orokorrean, europako enpresek salmenten aurreikuspenetan hobekuntza ikusten dute, 2014koekin alderatuz. Esportazioei dagokionez, herrialde gehiengoko enpresek 2015ean garapena baikorra izango dela aurreikusten dute. Espainia bigarren herrialde baikorrena da kanpoko salmentei dagokionez, Portugalen atzetik eta europako batzbestekoaren oso gaintik. Honen inguruan Hungaria eta Austria dira ezkorrenak. Gipuzkoa berriz, batzbestekoaren gaintik kokatuko litzateke. Enpleguaren aurreikuspenak baikorrak dira batez ere Portugalen, Estonian eta Espainian, 2014ko emaitza baikorra gainditzea espero delarik. Austrian, Hungarian eta Italian egoera okerragoa da, enplegoa suntsitzeko arriskua dagoela aurreikusten dutelak. Gipuzkoa rankingnaren beheko aldean kokatuko litzateke enpresen aurreikuspenak kontutan hartzen baditugu, baina 2014ko emaitzak errepikatuko balira, hala izango dela ikusten delarik, erdiko aldean kokatuko litzateke. Inbertsioen aurreikuspenak ere baikorrak dira eta batez ere Portugal eta Esloveniarentzat dira hobekak. Berrito ere Austria eta Hungaria dira emaitza okerrak espero behar dituztenak, Espainia Europaren batzbestekoaren gaintik kokatzen den bitartean. Arlo honetan, Gipuzkoa taularen behekaldean kokatzen da, oso jarrera kontserbadorearekin.




Munduko ekonomia

Espero zena baino hazkunde ahulago batekin eta beherako joerara loturik une oro 2014ko lehen hiruhilkoan, munduko hazkundera espero zena baina ahulagoa izan da, hau dela urte amaierarako espero zen igoera ez da eman. Horrela munduko ekonomiak %3,3ko hazkundera izan du 2014ean. 2015erako berriz, hazkunderaren gorakada bat aurreikusten da ekonomia aurreratuentzat, Japonen eta Eurogunean motelagoa eta EEBBetan eta beste eskualdeetan azkarragoa. Asia bezala hazten ari diren merkatu handiei dagokionez, hazkundera oraindik mantenduko dela aurreikusten da, Txinan atzerakada txiki bat emango delarik eta Indian berriz hazkundera goarakada izango du, Brasilen eta Errusian estuago arituko diren bitartean. Erabat sendotzen ez

den errekeruperazio honen ondorioz, hazten ari diren merkatuak krisiaren aurretik izan zen boom-ean zituzten hazkunde tasatara itzultzen ari direla ikusten da, besteak besteak posizioak hartzen ari diren bitartean.

PREVISIÓN CRECIMIENTO MUNDIAL DEL PIB 2015, tasa de variación interanual



(e) 2015 estimaciones FMI
Fuente: Boletín Fondo Monetario Internacional, Enero 2015

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irene Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347